



## *Ormaiztegui Udala*

### **2018ko ekainaren 25eko UDALBATZA OSOKOAREN BATZARRE EZOHIKOA**

ORMAIZTEGIIn, 2018ko ekainaren 25ean, arratsaldeko 19:00etan, Udaletxe honetako Bilkura Areto Nagusian Udalbatza Osoa biltzen da, JON ENRIQUE GALARZA Udalbatzarreko Presidentearen lehendakaritzapean, BATZARRE EZOHIKOA lehen deialdian egiteko asmoz, behar den forman eta alde z aurretik Udalkide bakoitzari igorria izan zaien AZTERGAI ZERRENDAREN arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide Jaun/Andreok:

- Agustin GILABERT MOLIST Jna.
- Rosario BERASATEGI AIZPEOLEA And.
- Izaskun UNZURRUNZAGA PILDAIN And.
- Olaia IZAGUIRRE CRUZ And.
- Beñat HACH EMBAREK IRIZAR Jna.
- Jose Maria YURRITA ARREGI Jna.
- Aitor YURRITA ZABALA Jna.

Idazkaria:

- Begoña Antxustegi Bengoetxea And.

Ez dira agertzen, baina bere ezagertzea desenkusatur:

- Inor ez.

Ez dira agertzen, bere ezagertzea desenkusatu gabe:

- Josu Mirena MAYORA ORIA Jna.

Segidan Lehendakariak hasiera eman dio bilerari, gutxiengo quorum-a gainditzen denez.

#### **LEHENENGO PUNTUA:**

#### **2018ko Aurrekontuaren barruan 2. Kreditu Aldaketa onartzea, hala badagokio.**

Alkateak urteko aurrekontuko 2. Kreditu Aldaketaren beharra azaldu du.

Izan ere, aldi baterako peoiaren aurtengo lana ordaintzeko partida ez zegoen jasota aurrekontuan eta, beste alde batetik, polikiroldegian egin behar izan diren lanak aurreikusita zegoen gastua baino handiagoa izan dute, egin diren lanak ere espero zirenak baino gehiago izan baitira.

...//...

E-18/04-01



Udal1-batzarre  
E-18.04.06

## Ormaiztegi Udala

...//...

Gastu horiek finantzatzeko parte bat inprebistoan diru partidatik hartu da eta beste parte bat GOIEKIk peoia kontratatuzko ematen duen dirulaguntzak finantzatu du.

Ez da eztabaidarik edo galdera zehatzik izan eta bozketari ekin zaio. Udalkide guztiek aldeko botoa eman dute ahobatez onartu da.

### **BIGARREN PUNTUA:**

#### **2018ko Aurrekontuaren barruan 3. Kreditu Aldaketa onartzea, hala badagokio.**

Alkateak hitza hartu du eta 3. Kreditu Aldaketaren zergatia azaldu ditu.

Izan ere, 2017ko aurrekontuan jasota zeuden Eskola Zaharren eraikina berritzeko lanen finantzazioa eta Osasun Etxeko proiektuen idazketa eta obraren zuzendaritza ordaintzeko partida.

Baina, Eskola Zaharren eraberritze lanak urriaren bukaeran hasi zirenez, erabili zen dirukopurua osoaren parte txikia besterik ez zen izan eta gehiena 2018ko aurrekontura ekarri beharra izan da.

Antzekoa gertatu da Osasun Etxearekin ere, 2017ko aurrekontuan jasota baitzegoen proiektuak idazteko eta obra zuzentzeko finantzazioa baina ezin aurten arte gastatu.

2017ko aurrekontuaren likidazioa egitean, kopuru horiek ez direla gastatu egiaztatzen da eta altxortegi gerakinera pasatzen dira. Aurten altxortegi gerakinetik ordainduko dira kontzeptu horiek.

Eztabaida ireki da, baina azalpena nahikoa izan dela iritzita, bozketari ekin zaio eta ahobatez onartu da.

### **HIRUGARREN PUNTUA:**

#### **Energia hornikuntza eta zerbitzua lehiaketa bidez kontratatuzko espedienteari hasera ematea, esleipen prozedura irekia erabiliz, eta kontratazioa arautuko duten Pleguak onartzea, hala badagokio, alkateari lizitazio prozesuan hartu beharreko erabakiak hartzeko ahalmena ematea.**

Alkateak adierazi du Ormaiztegin kaleko argikuntza berritu, hobetu eta eguneratu beharra larria eta ezinbestekoa dela. Kontratu mota honek energia berriztagarriak eta garbiak erabiltzeko aukera ematen duela azaldu du eta Energiaren Euskal Erakundearen (EVE) aholkularitza izan duela Udalak aipatu du.

...//...

E-18/04-02



Udal1-batzarre  
E-18.04.07

## Ormaiztegui Udala

...//...

Idazkariak gaineratu du kontratuak hamabi urteko konpromisoa dakarrela Udalarentzat, inbertsioa amortizatzeko behar direnak, eta, zenbatekoa osorik hartuta handia denez, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dela. Proposamenak aurkezteko epea argitaratzera bidaltzen denetik 35 lanegunekoa izan behar duela gutxienez azaldu du, hortaz, esleitzen denerako udazkena iritsiko dela.

Horrez gain, garrantzizkoa iruditu zaio kontratuaren oinarria 2017an RENER enpresak egindako diagnostikoan eta ebaluazioan datzala gogoratzea, eta diagnostiko hori 2015eko datuetan oinarritzen dela azpimarratu du.

Alkateak erantsi du Udalak urtean argindarretan ordaintzen duen kopuruaren parekoa izango dela kontratu hau urtean kostatuko dena.

Idazkariak, bere aldetik, eskerrak eman dizkio Agustín Gilabert zinegotziari urteko prezioak errebisatzeko formula zuzena hautatzen lagundu diolako, EVERi eta arloko enpresa bati galdetu ondoren, ez baitu argibide nahikorik lortu. Esan duenez, hautatu den formula Udalarentzat mesedegarria delakoan dago, enpresen lehiakortasuna kaltetu gabe.

Ondoren, bozka egin da eta Udalkide guztiek aldeko botoa eman dute. Hortaz, espedienteari hasera ematea adostu da, onartuta geratu dira Pleguak eta lizitazioaren baitan hartu beharreko erabakiak hartzeko ahalmena eman zaio alkateari.

### **LAUGARREN PUNTUA:**

**IVAPekin eta EUDELein Izapideen Eskuliburua garatzeko Akordioa hartzea eta arduradun politikoa eta arduradun teknikoak izendatzea, hala badagokio.**

Alkateak hitza hartu eta Izapideen Eskuliburua zertan datzan laburtu du. Udalean ematen diren zerbitzu guztien eta egin daitezkeen tramite guztien katalogoa dela, web orrialdean jarriko dena, esan du. Lan hori urtarrilaren amaieran bukatzea aurreikusten dela adierazi du, IVAPen eta EUDELen gidaritzapean egiten dela, 500 euroko kostua duela eta hilean Udalak egin beharreko lanak ezartzen direla azaldu du. Horretarako, ordezkari politikoa eta teknikoa izendatu behar direla argitu du eta bere burua eta idazkaria proposatu ditu lan hori egiteko.

Udalkideei proposamena aurkezturik, bozka egin da eta ahobatez onartu.

### **BOSTGARREN PUNTUA:**

**ERREGUAK ETA GALDERAK**

Ez da erregurik ez galderarik planteatu.

...//...

E-18/04-03



*Ormaiztegi Udala*

Udal1-batzarre  
E-18.04.08

Eta bilkuraren puntu honetara iritsita, 19:45 ordu direnean, bilkura amaituzat ematen da. Eta nik, Idazkari-Kontuhartzailea naizen aldetik, horren akta egin eta ziurtatzen dut bertan esandakoa leial jasotzen duela.

Ormaiztegin, 2018ko ekainaren 26an.

Idazkaria-Kontuhartzailea,

Sin. Begoña Antxustegi Bengoetxea

...//...  
E-18/04-05